

ka armatua bera eta horren inguruko dena, «gizarte patriarlakari» dago-kion bezala, gizonezkoen irudikoa izan da, eta ez dago bermatzerik ba-beak besterik ekarriko duenik.

Gudariak eta putak

«Patriarkala, heterosexuala, misogino, homofobia eta arrazista» den «markoa zalantzan jartzera» eta beste ikuspegi batzuen «ausentzia lotsagarria betetzera» etorri den bildumak azken hamarkadetan euskal gizartearen egunerokoa baldintzatu duen biolentzia egoeraren dimentsio desberdinetan «euskal patriarkaturen» zantzu sendoak antzeman dituzte egileek.

«Borroka armatuan gudariak, borrokalariak, batzuentzat memoria merezi izan dutenak, militante finak, presoak... gizon heterosexualak izan dira beti», emakumeek ez baitute ondo enkajatzten nagusia izan den «imaginario patriarkal eta misogino». «Gorputz disidenteeak». hots, gizonezko homosexualek, ere ez.

«Begiratzetik ikustera» jauzi egitea proposatzen dute Mikel Etxabururen poemek

■ N. AZURMENDI

DONOSTIA. Teoria bitxi ugari ditu Mikel Etxaburu Osa (Ondarroa, 1969) poeta eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakasleak. Poesiaz duena lau hitzetan bildu daiteke: «Subertsiboa izan behar du». Subertsiboa da, esaterako, «exijitzen duelako titularretatik haratago sakontzea» eta ahalbidetzen duelako, besteak beste, «begiratzetik ikusterako jauzia egitea».

Begiak irekitzea eta ikusmena lantzea proposatzen du beraz 'Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak' bilduma osatzen duten 50etik gora

poemetan, geure egin ditugun «sator begiak patrikan gordetzea».

'Zu zara orain txoria' (Elkar, 2011) eta 'Hodeiak zapatean' (Susa, 2014) liburuen ondotik, hirugarrena du Blas de Otero-Bilbo Uria Nazioarteko VIII. Poesia Lehiaketa eman dion hau eta, sariketa horren kasuan usu denez, Erein etxearen eskutik argitaratu du.

Esperantza-kapital handia du Etxaburuk. Orbanak eta minak ere ugariak ditu, beste batzuen atseka-

beak eraginak asko eta asko. Liburua horietako «hainbat orbanen adierazle» dela azaldu zuen.

Poesiaren kontzepzio baten eta bizitzarekiko jarrera baten isla ere bada liburua eta bertako poemak. Baten batzuen sorreran Bilboko San Frantzisko kalean ikusitakoak daude. Eta horrelako tokietan, hain zuzen, areagotu egiten da begiratzearen eta ikustearen arteko aldea, batez ere ikusitakoak kontzientzia piztu eta ekintza



Mikel Etxaburu.

sustatzen badu. «Begira nahi gaituzte, ikustea transformatzailea delako», esan zuen aurkezpean, azalduz horretantxe datzala poesiaren izaera subertsiboa. Etxabururen ustez «poesia ez da

soilik errealitatea erreproduzitzeko bidea, erralitatea aldatzeko gaitasuna ere badu». Eta horixe frogatzen saiatu da 65 orrialdetan zehar.

nes en Orno, donde se reunio a más de 600 personas, la tercera hace escala en Pasai San Pedro. Las puertas de Albaola se abrirán a las 18.30 para que los asistentes puedan vivir una experiencia «inmersiva única, apta para familias y todas las edades, dando paso a una fiesta alternativa y finalizando con el indie más bailongo». Así lo anunciaron sus organizadores, la promotora musical Gure Bazterrak, en la presentación celebrada ayer en Albaola. El festival también incluye alguna sorpresa en esta ocasión, ya que, además de cambiar de localización a un entorno «idílico», dispondrá de un espacio de descanso, en el que diferentes 'foodtrucks' podrán a disposición del público comida variada.

La entrada cuesta 18 euros en venta anticipada. Si se adquiere el mismo día del festival en el recinto se abonarán 22 euros.